

---

## Premia/eskola 2.0 sareaz oinarritzko ikastaroa.

### 6.- Etengabeko Elikatze Sistema (SAI).

#### AURKIBIDEA

<b>6.</b>	<b>ETENGABEKO ELIKATZE SISTEMA (SAI)</b> .....	<b>1</b>
6.1.	SAI-a eta SAI-aren Konexio Eskema.....	1
6.2.	SAI-aren funtzionamendua: Kontrol Panela eta Soinu Alarmak.....	2
6.3.	Argi Mozketa baten aurrean nola jokatu .....	3
6.4.	SAI-aren bateriak .....	4

---

## 6. ETENGABEKO ELIKATZE SISTEMA (SAI)

---


### 6.1. SAI-A ETA SAI-AREN KONEXIO ESKEMA

**SAI-AREN DEFINIZIOA:** SAI-a edo Etengabeko Elikatze Sistema (UPS), bere bateria edo beste energia biltegiei esker, argi mozketaren aurrean, denbora mugatu baterako, konektatuta dauzkan elementu guztiak energia elektrikoaz hornitzen dituen gailua da. Bestalde, tentsio elektrikoa egonkortzen du, sare elektrikora konektatuta dauden ekipoak hondatu ditzaketen tentsio igoera eta jaitsierak iragaziz. Ondoren, SAI baten argazkia ikusten da.



**SAI-a** zerbitzariaren gelan kokatuta dago eta zerbitzariarekin konektatuta dago. Zerbitzaria, switch-ak, router-a eta Wifi kontrolatzailea egoten dira SAI-aren babespean.


**SAI-a**, **diferentzial** eta **magnetotermiko** batekin babestuta dagoen koadro elektrikoko linea zehatz (**SAI linea**) batera konektaturik dago. **Magnetotermiko** honen posizio egokia **beherantza** begira da, beste lineatako magnetotermikoak berriz, gorantza begira egon behar dira beti.



**Nota:** Koadro elektrikoko SAI zirkuitua

## 6.2. SAI-AREN FUNTZIONAMENDUA: KONTROL PANELA ETA SOINU ALARMAK

### 6.2.1.- Kontrol Panela.



- 1 eta 2 – OFF: Biak aldi berean sakatu behar dira SAI-a itzaltzeko.
- 3 – ON: Abiatze botoia.
- 4 – ISILDU: Botoia sakatzerakoan soinu alarma isildu egingo da.
- 5 – BY PASS: Korrante elektrikoa probatzeko, SAI-a desgaitzen da.

- 6 – LED BY PASS: Unitatea SAI gabe funtzionatzen ari denean pizten da.
- 7 – LED BATERIA: Bateriak kargatzerakoan pizten da.
- 8 – SARE LED-a: Tentsio elektrikoa mugen barruan dagoenean pizten da. Korronteaz, beti piztuta egongo da.
- 9 – TENTSIO LED-a: Irteerako tentsioa nabaritzen denean pizten da.
- 10 – ALARMA LED-a: Errore bat nabaritzekoan pizten da.


### 6.2.2.- Soinu alarmak.



- 1. SOINUA: 15 segundoro txistu luze bat – Bateria batekin bakarrik lanean.
- 2. SOINUA: 5 txistu motz – Unitatea pizterakoan, auto-test-a egiten duen bitartean.
- 3. SOINUA: Segundoro txistu luze bat – Bateria baxua.
- 4. SOINUA: 2 txistu motz – Egoera aldaketa bakoitzean, sai-arekin, sai-rik gabe, itzalita.
- 5. SOINUA: Erabilerarik gabe.
- 6. SOINUA: 5 txistu motz eta luze bat etengabe – Tenperatura igoera.
- 7. SOINUA: 20 txistu motz – BY PASS edo SAI gabe lan egitea beharrezkoa denean.

## 6.3. ARGI MOZKETA BATEN AURREAN NOLA JOKATU

Zentroan **argi mozketa** bat antzematen denean, komenigarria da informatika arduraduna zerbitzari gelara joatea **elementu kritikoak** (zerbitzaria, switch-ak...) **itzaltzera**. Tentsio igoerengatik edo bapateko itzalketengatik, **zerbitzaria** edo **RACK-eko edozein aparatu elektrikoetan** gerta daitezkeen hondaketak ekiditeko hartzen den neurri bat da.



## 6.4. SAI-AREN BATERIAK.



**SAI-ak**, serieran kokaturiko **lau bateria** erabiliz ematen du energia. Bateria hauek, ekipoak **hainbat minutuz** funtzionamenduan mantentzen ditu. Denbora pasa ahala **bateria hauek hondatu edo agortu** egiten dira. Hondatu ezker, aldatzea derrigorrezkoa da elementu kritikoak babestuta segi daitezten. **Kontsumibletzat** hartzen dira, beraz, baterien aldaketaren kostua zentroak hartu beharko luke bere gain.